


EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ELKARTEA ETA EUSKAL MERKATARITZA, 1765-1808



Mar. Solvicio: Carrera fidei

Gradu Amaierako Lana

Historiako Gradua

2020/2021 Ikasturtea

Egilea: Jon Intxausti Arbaiza

Tutorea: Xabier Lamikiz Gorostiaga

Saila: Politika Publikoak eta Historia Ekonomikoa

Laburpena:

XVIII. mende erdialdean Euskal Herrira Europatik hedatzen ari ziren ideia ilustratuak heldu ziren, haien etorrera eta zabaltzea egoera ekonomiko eta politiko zehatz batean gertatu zelarik; Antzinako Erregimenaren krisiaren ataria zen. Euskal nekazaritzak onenak emanda zituen testuinguru horretan, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak jaio zen 1765ean, merkataritzaren balioa aldarrikatzen zuen euskal elite baten eskutik. Elkartearen kideak, haien artean nobleak eta merkataria, XVIII. mendean gauzatutako estatu administratiboaren eraketa prozesuan protagonistak izan ziren, neurri batean noblezia tradizionaletik aldentzen ziren jarrera berritzaileak aurkeztuz, zeinak merkataritzaren defentsa sutsua zekartzen.

Berrikuntza horiek aztertzeko ezinbestekoa suertatzen da lehenago euskal merkataritzaren, eta zehazki kanpo merkataritzaren, egoerari erreparatzea, eredu ekonomiko zaharra kolokan zegoela ikusteko. Horrez gain, Elkarteak merkataritzaren inguruan zeukan jarrera, Euskal Herriko konpainia pribilegiatu nagusiarekin, hots, Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainiarekin izandako harremanean islatu zen. Bestalde, Elkarteak pentsaera ekonomiko ezberdina izandako ilustratuek osatua zegoen heinean, aniztasun ideologiko hori nabarmenduko dugu, horretarako euskal pentsalari nagusien ideia ekonomikoak aztertuz. Pentsalariak Nicolás de Arriquíbar eta Valentín de Foronda izan ziren.

Bere izaera berritzaileari jarraituz, Elkarteak defendatutako erreformak sail ezberdinetan gauzatu ziren, nekazaritza eta industriaren hobekuntza merkataritzaren garapenerako ezinbestekotzat jotzen baitzen, eta alderantziz. Proposatutako neurriek zenbait kasutan irizpide teknikoek erantzuten bazieten ere, historiografiak arreta handiena foruekiko eztabaida bat eragin eta merkaturia bateratzea bilatu zuten neurriek eskaini die, gariaren merkataritza askea eta aduanen kokapenari, besteak beste. Izan ere, neurri horiek Elkarteak merkataritza eta foruen inguruan zeukan jarrera erakusten digute, foruen eraberritze bat ezinbestekotzat jotzeko euskal ekonomiaren garapena lortu ahal izateko, “foruzaletasun ilustratua” deitu izan denaren baitan.

Jarrera horrek, bere aldetik, Elkartearen galbidea izan ziren erakunde politikoen errefusa eta gizarte sektore ezberdinen oposizioa eragin zituen, aurkeztutako neurri eta izaera berritzailea bertan behera uztera behartuz. Hortaz, Elkartearen izaera ekonomikoa aztertzeko ezinbestekoa da foruen inguruko ikuspegian arreta jartzea, hori izan baitzen erakunde politiko eta gizarte sektore ezberdinekin izandako harremanen gakoa. 1808an Elkarteak bere batzordeak (haien artean, merkataritzaren ingurukoak) desegin zituen arren, haren eragin ekonomikoa XIX. mendean zehar mantendu zen “foruzaletasun liberala” deitu izan den pentsamendu ekonomikoaren baitan.

Aurkibidea:

1.	Sarrera.....	4
2.	Elkartearen sorrera eta ideologia.....	5-7
	2.1 Elkartearen jaiotza eta pentsamendua.....	5
	2.2 Elkarteko kideen izaera soziala.....	5-6
	2.3 Elkartek burututako merkataritzaren defentsa.....	6-7
3.	Euskal merkataritzaren ezaugarriak.....	7-12
	3.1 Funtsezko merkataritza sektoreen krisia.....	8-9
	3.2 Merkataritza konpainia pribilegiatuak eta haien harremana Elkartearekin.....	9-12
4.	Ilustratuen pentsamendu ekonomikoa.....	12-16
	4.1 Nicolás de Arriquibar.....	12-13
	4.2 Valentín de Foronda.....	14-16
5.	Elkartek sustatutako erreformak.....	16-18
6.	Foruak eta merkataritza: Elkartearen ikuspegia.....	18-22
7.	Egitasmo ilustratuaren harrera eta emaitza.....	22-24
8.	Ondorioak.....	24-26
9.	Artxiboko iturriak.....	27
10.	Bibliografia.....	27-29

1. Sarrera

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte eta haren izaera ekonomikoa XX. mendean zehar berrikuspen ugari izandako gaia da. 1950eko hamarkadan Antonio Elorza bezalako historialariek ilustrazioaren testuinguruan kokatu zuten Elkarte, haren jarrera berritzailea Pablo Fernández Albadalejok eta bestelako historialariek ikertutako Antzina Erregimenaren krisi garaian eredu ekonomikoa eraldatzeko garrantzitsua izan zela adieraziz. 1990eko hamarkadan Elkartearen pentsamendu ilustratua modu eszeptikoan interpretatzen zuten historialariak azaleratu ziren, Jose Maria Portillo esaterako. Hauek, Elkarteari krisian zegoen Antzinako Erregimeneko eredu ekonomikoa mantentzeko nahia leporatu zioten, zeina foruzaletasun ortodoxo bati lotua baitzegoen (Astigarraga, 2003b: 16). Azken urteetan, kontrajarriak diren jarrera historiografiko horiek hurbiltzeko saiakerak aurkitzen ditugu, Jesús Astigarragaren lanak aspektu horretan aipagarriak izanik.

Lan hau burutzerako orduan Elkartearen inguruko lehen mailako iturriak erabili dira, batzordeetako txostenak edota kide ezberdinek bidalitako gutunak, besteak beste, Elkarteak merkataritzaren inguruan izandako jarrera erakutsi nahian. Bibliografiari dagokionez, Astigarraren lanek berebiziko garrantzia izan dute, gai honen inguruan joera historiografiko berriena baita. Astigarragak Elkartearen pentsaera ekonomikoa azaltzerakoan foruzaletasunaren inguruko eztabaidari arreta handia eskaini dio, bereziki merkataritzarekin loturiko gai batean, hots, aduanak mugitzearen inguruko auzian. Halaber, Astigarraga 1990eko hamarkadako historiografiatik aldendu egin da, Elkarte eredu ekonomiko tradizionala aldatzeko nahi berritzaile batekin lotuz, beti ere foruak errespetatuko lituzkeen ideologia baten barnean, “foruzaletasun ilustratua” bezala izendatutakoa.

Lan honen helburua, beraz, krisian zegoen euskal ekonomiaren aurrean Elkarteak merkataritzaren arloan izandako jarrera erreformatzailea aztertzea izan da, pentsalari ezberdinek aurkeztutako iritziei garrantzia emanez. Elkartearen pentsamendua aztertu ahal izateko haren kideen izaera soziala eta gainbeheran zeuden merkataritza sektoreak ikertzeaz gain, Elkarteak erakunde ekonomiko eta politiko ezberdinekin izandako harremanetan jarri da arreta. Bestalde, Elkarteak sustatutako neurriek lanaren ardatz bat suposatu dute, batez ere aduanen inguruko auzia eta gariaren merkataritza askea aztertu direlarik, Elkartearen egitasmo ilustratuak izandako harreraren (bai erakunde politikoetan zein euskal gizartean) eta emaitzen inguruko gogoeta bat burutuz.

2. Elkartearen sorrera eta ideologia

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen izaera ulertzerako orduan, testuinguru soziala zein ekonomikoa aztertzea ezinbestekoa suertatzen da. Izan ere, Elkartea ilustrazio aldian jaio zen, Europan hedatzen ari zen despotismo ilustratuaren testuinguruan, zeinean pentsaera ekonomikoko berriek, haien artean fisiokrazia¹, indarra hartu zuten. Testuinguru ekonomikoa dagokionez, Euskal Herriko sektore ezberdinetan hedatzen ari zen krisiak Elkartearen eraketan eragin handia izan zuen. Bestalde, Elkartea osatzen zuten kideen izaera aztertzea ezinbestekoa da, Borboitarren eskutik azaldutako talde sozial bat nabarmentzen delarik.

2.1 Elkartearen jaiotza eta pentsamendua

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea Europan zabaltzen ari zen ilustrazioaren testuinguruan jaio zen, 1765ean. Honetan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ilustratu eta nobleak biltzen ziren, Euskal Herriko ekonomia, kultura eta gizarteari lotutako gai ezberdinak jorratzeko. Euskal ekonomiaren inguruko kezka jada noble ezberdinek Insausti jauregian (Azkoitian) egindako solasaldietan aurkitzen dugu. Hizketaldi horietan, besteren artean, Gipuzkoako sektore tradizional ezberdinen krisiaz mintzatu ziren, etorkizunean Elkartearen kideak izango zirenak (Gárate, 2008: 858). Kide horiek ekonomia zientziaren beharra azpimarratzen zuten, horretarako hiru sail bereiztuz: nekazaritza, zientzia eta arte baliagarriak eta merkataritza (Anes, 1985: 28). Hortaz, Elkartearen sorrera prozesuan euskal lurretan gertatzen ari zen ekonomia gainbehera, Europan hedatzen ari ziren pentsaera ekonomikoen eragina bezain garrantzitsua suertatu zen. Azken finean, hezkuntza, zientzia eta kultura lehen mailako ardurak baziren ere, Elkartek Euskal Herria ekonomikoki garatzeko nahiari erantzuten zion.

2.2 Elkarteko kideen izaera soziala

Elkartea osatzen zuten kideei dagokienez, bereziki XVII eta XVIII. mendeetan gortean, administrazioan, Elizan eta armadan murgildutako euskal behe eta erdi nobleziako familien kideak ziren. Hots, senide eta adiskideengandik jasotako babesletzari esker Monarkia Hispanikoko karrera ezberdinetan ugaldutako leinuak ziren (Imízcoz eta Chaparro, 2009: 1008). Familia nobleak ez ziren soilik Euskal Herrira mugatzen, haien eragina Monarkia Hispanikoaren inperiora hedatzen baitzen. Hortaz, kideen gehiengoa euskal probintzietatik

¹ Fisiokrazia XVIII. mendearen bigarren erdialdean Frantzian garatutako pentsamendu ekonomikoa izan zen. Nazioen aberastasunaren oinarria nekazaritzan aurkitzen zela aldarrikatzen zuen. Halaber, korrante honek estatuak gizartearen ordena naturala errespetatu behar zuela defendatzen zuen, besteak beste, merkataritza askatasuna bermatuz.

kanpo aurkitzen zen, Monarkia Hispanikoaren barruan gauzatzen zen gizataldeen mugikortasun geografiko eta sozialaren adierazpen gisa (Imízcoz eta Chaparro, 2009: 1020).

Aniztasun geografikoaz aparte, Elkartearen barnean aurkitzen zen kideen ugaritasuna nabarmendu beharko genuke ere. Elkartearen barruan noblez gain, merkatariak ere aurkitzen ditugu, Bilbo, Donostia eta Gasteizen ezarriak baina baita Madrilen, Cadizen eta Ameriketako hiri nagusietan ere. Elkarreak merkataritzari garrantzi handia eman zion, Antzinako Erregimeneko pentsaera ekonomikoaren aurrean merkataritza herrialde bat garatzeko bide gisa ikusten baitzuen (Alcorta, 2009: 964)². Elkartearen kideek 1760ko hamarkadarako argi zeukaten aurreko urteetako hazkunde ereduak muga nabarmenak zituela, eta beraz, eredu berri bat bilatu behar zela. Eredu berriaren erdigunea itsas-ekonomia izan behar zen, merkataritzan, burdingintzan eta arrantzan zentratuz, eta ez hainbeste nekazaritzan (Astigarraga, 2009: 670).

Beraz, Elkarrea osatzen zuten nobleak hiribilduko ala probintziako politikan murgildutako maiorazkodunak baziren ere, bazuten harreman hertsia gortean, administrazioan, armadan edota merkataritzan aritzen ziren lagun eta senideekin. Senide horiek familiaren goratzea sustatzen zuten, euskaldunek osatutako sare batean (Imízcoz eta Chaparro, 2009: 1019). Hortaz, Elkartearen sortzaile eta kideak, Borboitarren ezarpenarekin agertutako estatu administratibo eta militarren eraketan parte hartutako eliteak ziren. Elite hau nobleziaren balio tradizionalatik aldentzen zen, herriaren garapena bilatuz eta haren jatorrizko esparrutik haratagoko arloetara zabalduz bere eragina, esaterako merkataritza. (Imízcoz, 2016: 178). Noblezia tradizionalarekiko kritika Gaspar de Munibe y Telloren (1711-1793) hitzetan ikus dezakegu³:

Nuestra nobleza sólo pretende su conservación en la existencia de sus generaciones, pero no en que tengan el fuste necesario para que sean hombres útiles en el Estado, porque suponen que el nacimiento suplirá las faltas que puede haber en la educación (Imízcoz, 2016: 178).

2.3 Elkarreak burututako merkataritzaren defentsa

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarrea merkataritzari garrantzia ematen saiatu zen bere sorreratik, noblezia tradizionalak merkataritza jardueri esleitutako gaitzespenaren kontra

² Antzina erregimeneko pentsaeran metal preziatuaren pilaketa aberastasunaren adierazpen garbiena zen.

³ Gaspar Munibe y Tello, Valdeliriosko markesa, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen ordezkari nagusia izan zen Madrilén, elkartearen interesak defendatu zituelarik gortean. Horrez gain, haren gortearen barruko karrera profesionala Ameriketako koloniei hertsiki lotua egon zen. Izan ere, Munibe Perun jaioa zen (Blanco, 2021).

eginez. Horrela, Monarkia Hispanikoko gizarte sektore ezberdinek, batez ere Gaztelako nobleziak, merkatariei ukatutako noblezasunaren aurrean, Elkarreak merkataritzak zekartzan onurak azpimarratu zituen (Alcorta, 2009: 957). Merkataritzari esker, faltan zeuden ondasunak bertako soberakinen ordeztaritzeaz gain, nekazaritza lurren ustiatetaren zabalpen eta hobekuntza bultzatu zitekeen, herriaren beharrak asetz. Hortaz, haien idazkietan nobleak merkataritzan murgiltzera animatzen zituzten, bai haientzat zein merkataritzarentzat ekar zitzaketen abantailei erreparatuz.

Merkataritzari lotuta, Elkarreak industriaren defentsa zuzurra egin zuen, merkataritza balantza orekatzeari beharra aldarrikatuz, euskal lurraldeek zenbait produktutan zeukaten eskasari erantzun ahal izateko. Horrela, atzeritik ekarritako ondasun ezberdinak Euskal Herrian ekoiztea eskatu zuen Elkarreak, gehienbat ehungintzari lotutako manufaktura. Ekoizpenaren garapena gerta zedin, langileen espezializazioa eta hezkuntza ezinbestekotzat jotzen zen, eskola ezberdinen sorrera bultzatuz (Alcorta, 2009: 960). Industriaren garapen testuinguru honetan, Elkarreak Bergaran sustatutako Laban Konpainiaren proiektua azpimarratu beharko genuke. Laban eta burdinazko ondasunen ekoizpena probintzia eremura ez ezik, nazioarteko merkatura bideratua zegoen (Astigarraga, 2009: 678).

Elkarreak Euskal Herrian aurkitzen ziren baliabideak merkataritza balantza orekatzeko suposatzen zuten onura azpimarratu zuen. Hots, Euskal Herrian zegoen burdina, baina baita kobrea, eztainua edo marmola ere, esportaziorako gaiak kontsideratzen zituen. Halaber, Ameriketako merkataritza irekitzearen beharra aldarrikatzen zuen, euskal portuek merkataritza zuzenean parte har zezaten. Azkenik, luxuen kontsumoaz mintzatu zen ere, pizgarri ekonomiko bat kontsideratuz. Hauen kudeaketa egokiak, sektore ezberdinen (nekazaritza, artisautza, merkataritza) hobekuntza ekarriko zuela defendatzen zuen (Alcorta, 2009: 962).

3. Euskal merkataritzaren ezaugarriak

Elkarrea euskal merkataritza krisi eta erreforma testuinguru batean sortu zen. Garai horretan, euskal merkataritzaren funtsezko ezaugarriak ziren burdin eta artilearen esportazioak eta merkataritza konpainia pribilegiatuak gainbeheran zeuden. Konpainia pribilegiatuei dagokienez, Euskal Herriaren kasuan Caracasko Gipuzkoar Errege Konpainia nabarmenduko beharko genuke, zeinak merkataritza mugimenduen ehuneko adierazgarri bat suposatzen

zuen. Elkarreak hasieratik Konpainiarekiko interesa izan bazuen ere bien arteko lankidetzaz bilatuz, bi erakundeen arteko tentsioa sortu zen, batez ere Konpainia osatzen zuten Donostiako merkatarien inguruan, Elkarteko Donostiako sailean ordezkaturia egongo zena.

3.1 Funtsezko merkataritza sektoreen krisia


XVIII. mendean Euskal Herria nekazaritzan oinarritutako ekonomia bat zen, baina bertako ekoizpena ez zen nahikoa populazioa hornitzeko. Hortaz, elkartrukeak biztanleria landatarraren eskaerari erantzutera bideratuak zeuden. Eskaera hau, hein handi batean, euskal lurraldeetako edota ondoko eskualdeetako barne mugimendu komertzialei esker asetzen zen. Beraz, Euskal Herrian gauzatzen ziren merkataritza mugimendu gehienak tokian tokikoak ziren, alkohola, garia eta egurra ondasun nagusiak izanik. Hala ere, kanpo merkataritzaren pisua kontuan hartzekoa da ere, euskal burdin landua eta burdinazko tresnak, Gaztelako edo Nafarroako artilearekin batera, esportazio nagusiak izanik. Ondasun horiek penintsulako beste eskualde zein Europa eta Ameriketako kolonietara bideratzen ziren⁴. Horrez gain, euskal portuek Europa eta Amerika arteko merkataritzan ondasun ezberdinen bitartekari moduan jarduten zuten (Gárate, 1988: 39).

Aitzitik, 1760ko hamarkada inguruan merkataritzak uzkurdura bat pairatu zuen, besteren artean, siderurgian gertatutako gainbeherak eraginda. Euskal portuek, Bilbo eta Pasaia batik bat, 1770ko hamarkadan atzeritarren burdin eskaeran urritze adierazgarria jasan zuten. Atzerriko eskaera murrizteko arrazoiaren artean, kostuen igoera zekartzan egur-ikatzaren prezioen gorakada eta atzerriko siderurgian gauzatutako berrikuntzak aurkitzen ditugu⁵. Egia da, hala ere, kolonien eta barne merkatuaren eskaerak galdutako atzerriko merkatua neurri batean (inolaz ere ez guztiz) konpentsatu zuela (Gárate, 1988: 40). Penintsulako eta Ameriketako merkatuek euskal burdinarentzat hartutako garrantzia 1. Grafikoan ikus dezakegu. Grafikoan adierazten denez, XVIII. mende hasieran burdinaren helmuga nagusia Europa zen, baina 1760eko hamarkadaz geroztik joera aldatuta eman zen, kolonien eta penintsulako eskaria nazioartekoarekin parekatuz. 1790eko hamarkadan euskal burdina orokorrean penintsula eta, bereziki, kolonietako merkatuetara bideratu zen, Amerikarekin lotura zuzena zeukaten portuen bidez (Uriarte, 2003: 315).

⁴ Ameriketara, zonaldeko industria ahula izanik, burdinazko manufaktura bidaltzen ziren nagusiki.

⁵ Zeinen ondorioz, euskal burdinak zeukan beste herrialdeekiko abantaila galdu zuen.

1. Grafikoa. Bilboko portuko burdin esportazioen norakoak, 1733-1825 (ehunekotan epealdika)



Iturria: Uriarte, 2003: 315.

Azpitarratu beharra dago, baita Gipuzkoako kasuan, burdina merkaturatzean bi ardatz bereizten zirela. Alde batetik, Gipuzkoa barnealdeko burdinolek manufakturak, gehienbat lanabesak, ekoizten zituzten (esaterako, goldearen nabarra), gero Araban saltzen zituztenak. Bestetik, kostaldetik gertu ala kostalderako irteera zeukaten burdinolek haien ekoizpenaren zati handi bat kanpo merkaturantz bideratzen zuten (Gárate, 1988: 40).

Euskal Herriko artilearen merkatuak jasandako krisiari dagokionez, Santanderrek 1760ko hamarkadaz geroztik artilearen merkataritzan eskuratutako garrantziarekin lotu beharko genuke. Santanderren gorakadan, Bilboko merkatarien presiotik askatu nahi ziren Burgos eta atzerriko merkatarien eragina egon zen. Baina, haren arrakasta erlatiboa batez ere Madrilgo gobernuarengandik jasotako sostenguaren ondorioz gertatu zen. Koroaren mesedearen adierazpen argiena, lautada eta Kantauriko kostaldea lotzen zituen Reinosako errege bidearen eraikuntza litzateke, 1753an bukatua. Horrez gain, Santanderreko artile esportazioak sustatu nahian, 1763an Santanderretik esportatzen ziren ondasunei ordaindu beharreko zergen % 4 jaitsi zitzaizen, zeinak euskal merkataritzarako kolpe latza suposatu zuen (Gárate, 1988: 43).

3.2 Merkataritza konpainia pribilegiatuak eta haien harremana Elkartearekin

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak hasieratik merkataritzan interes handia izan bazuen ere, haren eragina ez zen berdina izan merkataritza portu nagusietan. Bilbon egitasmoak harrera

ona izan zuen, Elkartek Bizkaiko nobleen onespenez gain Bilboko Kontsulatuko merkatarien sostengua ere izan baitzuen. Aitzitik, Donostiako kasuan ez zen berdina gertatu. Bilboko merkatariak Elkartea haien egoera indartzeko aukera gisa ikusi zuten bitartean, Donostiako merkatariak kontsulatua aparte, haien merkataritza interesak ordezkatzeko zituen monopoliodun konpainia bat baitzeukaten 1728tik, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra, hain zuzen (Astigarraga, 2009: 670).

Caracasko Konpainiak Donostiako ekonomian eragin zuzena zeukan, hiriko merkataritza eta itsas jardueren ehuneko handiena Konpainiara bideratzen baitzen. Hortaz, Konpainiatik kanpo zeuden beste jarduerak baztertzuz joan ziren, eremu txikiko merkataritza eta arrantza kasuan kasu, hauek eskaintzen zuten etekin txikiagoen ondorioz. Modu honetan, Donostiako ekonomia Konpainiari hertsiki lotuta geratu zen (Astigarraga, 2009: 672). Elkartea Konpainiaren balioaz jabetu zen, Euskal Herriaren garapen ekonomikorako tresna gisa izan zezakeen papera aldarrikatuz. Aitzitik, Elkartek Konpainiari Euskal Herriko garapenean ez laguntzea eta bakarrik Donostiako merkataritza sustatzea leporatu zion.

1742tik Gipuzkoar Konpainiak Venezuelako merkataritza monopolioa bazeukan ere, eta beraz, lurralde horrekiko esportazio eta inportazioen gaineko kontrola, ez zuen euskal ekonomiarentzat hainbesteko abantaila suposatu, Elkartearen ustez. Azken finean, Konpainiak gehienbat Gaztelako beste lurraldeetako eta atzerriko ondasunak berresportatzen zituen. Esportatuko Euskal Herriko produktu bakarrak burdina eta Soroluzen egindako armak ziren, euskal industriaren garapena bilatzen zuen Elkartearen haserretarako (Astigarraga, 2009: 673). Halaber, egia ere bada, Elkartek Konpainiaren akziodunekiko jarrera abegikorra izan arren, donostiarrak Elkarteko zuzendaritza karguetatik urrun mantendu zituztela beti, zeinak bi erakundeen arteko hurbilketan laguntzen ez zuen (Astigarraga, 2009: 674).

Zenbait aspektutan bi erakundeek jarrera kontrajarria izan bazuten ere, horrek ez zuen bien arteko lankidetzak ekiditu. Azken batean, Caracasko Konpainiak euskal lurraldeak Ameriketako merkataritzan aritzeko bidea suposatzen zuen, Konpainiari esker Elkartek bultzatu nahi zituen euskal manufaktura merkatu seguru eta errentagarri bat izanik. Halaber, Konpainiak egitasmo ezberdinak burutu ahal izateko inbertsio ekonomikoa eskaintzeaz gain⁶, merkataritzaz haraindiko jardueretan helburuak partekatzen zituen Elkartearekin, esaterako berrikuntza teknologikoen garapena (Astigarraga, 2009: 674)⁷.

⁶ Hau izan zen Bergarako Laban Konpainiaren kasua, Caracasko Konpainiak Laban Konpainia sortzeko kapitala aurreratzeaz gain, bere produktuen erosle nagusia zen.

⁷ Honen eredu Tolosako arma-fabrikaren frantziar eta ingeles ekoizpen teknikak ezartzeko saiakerak izango lirateke, Bergarako Laban Konpainiaren eredu jarraituz.

Konpainia eta Elkarteak zenbait egitasmo partekatu zituzten arren, Bergarako Laban Konpainiaren porrotak bien arteko lankidetzaren bideraezintasuna agerian utzi zuen. Horrez gain, 1765ean hasi zen Ameriketako merkataritza askerako prozesuak Caracasko konpainiarentzako suposatzen zuen mehatxua kontuan hartu behar dugu⁸. Amerikako merkataritzaren irekierak Caracasko Konpainiaren egoera pribilegiaduna arriskuan jarri zuen, penintsulako beste portuak Caracasen aritzeak mehatxu handia suposatzen baitzuen. Ezjakintasun testuinguru horretan, defizitario suerta zitezkeen proiektuetatik ateratzea ezinbestekoa suertatu zen (esaterako, Bergarako Laban Konpainia izan zen biktimetako bat), bi erakundeen arteko elkarkidetzak kaltetuz (Astigarraga, 2009: 679).

Elkarte eta Konpainiaren arteko banaketak ez zuen esan nahi Konpainiaren akziodunak Elkartetik erabat aldendu zirenik. Azken batean, Caracasko Konpainiaren akziodun ziren Donostiako merkatariek Elkartearen barruan ordezkatuak zeuden, erakundeak Donostian zeukan sailaren bidez (Astigarraga, 2009: 679). Donostiako saila kide kopuru handikoa bazen ere, ez zeukan aginpide handiegirik, sailaren barruko kideek ez baitzuten inolako kargurik. Horren ordez, Elkartearen sail donostiarreko kideen kopuru adierazgarri batek, Elkarteko karguetan baino, Donostiako udal zein kontsulatu postuetan izandakoak ziren, hiriko merkataritzarekin lotura zuzena zeukatenak (Domínguez et al. 1986: 242).

Donostiako sailean aurkitzen ziren merkatariek izaera ilustratua partekatzen zuten arren, Elkartearekiko kexa bat zeukaten: Donostiari eskainitako arreta eskasa. Salaketak batez ere Elkarteak Gipuzkoako aurrekontuetan egindako banaketa “bidegabeari” egiten zion erreferentzia, Donostia azpiordezkaturik aurkitzen zela salatuz (Astigarraga, 2009: 682). Horrez gain, Donostiako merkatariek hirian marrazketa eskola eratzerako orduan jasotako sostengu urria kritikatu zuten, horren guztiaren ondorioz Donostiako sailak haren elkarte propioa eratzea erabaki zuelarik.

Beraz, 1779an Donostiako Adiskideen Elkarteak sortu zen, zeinak Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearekiko ezberdintasun ideologikoei baino Donostiako ordezkariak handitzeko nahiari erantzuten baitzion. Donostiako Elkartearen xedeak beste elkarte ekonomikoen berdinak ziren, nekazaritza, industria eta merkataritzaren garapena, hain zuzen⁹. Donostiako Elkarteak, hiriaren muga eta merkataritza izaera aprobetxatuta, tokiko

⁸ 1765ean ordura arte ezarrita zegoen portu bakarraren politikari amaiera eman zitzaion, Monarkia Hispanikoko portu ezberdinei Amerikarekin merkataritzan aritzeko baimena eman baitzitzaion. Prozesu hau, 1778ko merkataritza askerako dekretuarekin osatu zen, Amerikarekin merkataritzan aritzeko kontzesio osoa penintsulako 13 portuei eman zitzaizkionean, baina ez euskal portuei.

⁹ Kontuan izan behar dugu Donostian nekazaritzak pisu txikia zuela. Ondorioz, Donostiako Elkarteak ez zuen sektore horren garapena gehiegi sustatu.

manufakturak bultzatu nahi izan zituen, bereziki ehungintzari begira, honen adibide Elkarteak erositako tornu eta ehungailuak izanik (Domínguez et al., 1981: 241).

Azkenik, bi elkarten artean sortutako ezberdintasunak baretu egin ziren, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Donostiako Elkarte kontrolatzera pasatu zelarik. Horren truke, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak diru-funtsaren banaketa “bidezkoa” egin eta Donostiak eskatutako egitasmo ezberdinak (marrazkigintza-eskola adibidez) sustatuko zituela hitzeman zuen (Astigarraga, 2009: 686). Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen barruan sortutako azpitalde honek Elkartearen baitan aurkitzen zen aniztasuna erakusten digu, zenbait aspektuetan, merkataritza askea ezartzearen inguruko auzian esaterako, egitasmo ilustratua abian jartzea zailduko zuena. Azken finean, egia bada ere orokorrean Donostiako merkatarien haserrea arrazoi ideologikoekin erlazionatua ez zegoela, ukaezina da Elkartearen sektore bat Donostian begi onez ikusten zuten merkataritza askearen kontra zegoela (Domínguez et al., 1981: 254).

4. Ilustratuen pentsamendu ekonomikoa

Kontuan izan behar dugu Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte erakunde anitza izan zela, aniztasun hori modu argian ikus daitekeelarik bere kideei erreparatuz gero. Azken batean, Elkartearen kideek antzeko helburua bazuten ere (Euskal Herriaren garapena, alegia), zenbaitetan interes zein pentsaera ekonomiko ezberdinen arteko talkak ematen ziren, besteren artean merkataritzaren ingurukoak. Honen adibide argia, Nicolás de Arriquíbar eta Valentín de Foronda lirатеke.

4.1 Nicolás de Arriquíbar

Nicolás de Arriquíbar (1714-1779), Bilboko merkataria familia baten jaioa, merkataria izateaz gain, tokiko instituzio politikoetan eta Elkartearen bertan aritu zen. Bere pentsamendu ekonomikoa orokorrean berdina izan zen bere bizitzan zehar, Elkartearen pentsamendu ekonomikotik nahiko hurbil aurkituz. Arriquíbar Elkartearen interesen adierazle argia izan zen, orokorrean biek ekonomia, industria eta merkataritzaren inguruko antzeko pentsamendua baitzuten (Astigarraga, 2003b: 105).

Arriquíbar haren garaikideak ziren fisiokraten ideietatik aldendu zen, herri baten garapenaren oinarria industrian kokatzen zela baitzioen eta ez nekazaritzan. Hala ere,

industriaren garapena sustatzeko herria asetu zezakeen nekazaritza indartsu baten beharra defendatzen zuen. Nekazaritzari dagokionez, garrantzi handia eman zion gariaren merkataritzari, lurjabe eta ahaldunek burutzen zuten gariaren espekulazioa garapenarekiko oztopo bat kontsideratuz. Espekulazioa ekiditeko, Arriquirbarrek ale merkatarien sare baten eraikuntza sustatzeaz gain, merkatuak bateratzearen alde egin zuen, 1765ean ezarritako aleen merkataritza askatasunaren inguruko pragmatika eta, beraz, tasen (gehienezko prezioen) ezabapena defendatuz. Horrez gain, errepide eta ubideen sare bat eratzea eta alea gordetzeko biltegi publikoen sistema bat sortzea proposatu zuen (Astigarraga eta Barrenechea, 1987: 43).

Arriquirbarrek atzerriko manufakturak euskal produktuen ekoizpenerako eta enpleguaren hazkunderako oztopoak kontsideratzen zituen. Haren ustez atzerriko manufakturen nagusigoa euskal manufakturek zeukaten barne eta kanpo merkaturatze ahularen arrazoa zen, zeinak industriaren garapenerako oztopo bat suposatzen zuen. Egoera horri buelta emateko, alkabala eta bestelako zergen ezabapena proposatu zuen, zirkulazio askea defendatuz (Astigarraga eta Barrenechea, 1987: 48). Arriquirbarrek aldarrikatutako zirkulazio askeak pisu handia izan zuen Elkarteak koroari egindako eskaeretan, bereziki 1779 ondoren euskal produktuei bestelako probintzietan inposatutako zergen kontra egiterako orduan.

Halaber, sektore ezberdinetan koroaren babesa izatearen beharra adierazi zuen, batez ere oraindik garatuak ez zeuden sektoreetan eta ekimen pribatuak bertan inbertitzeko ahalmena ez zeukan kasuetan (Astigarraga, 2003b: 113). Aspektu honetan, Elkarteak eta Arriquirbarrek bat egiten zuten, biek koroaren babesa defendatzen baitzuten merkataritzan. Azken finean, Elkarteak zein Arriquirbarrek koroaren babesa zeukaten merkataritza konpainia pribilegiadunak, Caracasko Konpainia batez ere, euskal produktuen esportaziorako tresna baliagarriak kontsideratzen zituzten.

Arriquirbarrek merkataritzaren egoera hobetu ahal izateko, Monarkia Hispanikoko aduanen erreforma bat ezinbestekotzat hartzen zuen. Haren ustez, aduanen sistema diru-bilketarako tresna bat baino, manufakturen trukaketa sustatzeko aukera bat suposatzen zuen. Horregatik, tokiko manufaktura gainean ezarritako zergak leuntzea ezinbestekoa zen, baita atzerriko ondasunen kasuan ere, baliabide gehiago izan aldera¹⁰. Hori bai, atzerriko eta tokiko manufakturen arteko zerga ezberdintasun bat ezartzea gomendatu zuen tokiko manufakturen mesederako (Astigarraga, 2003b: 113).

¹⁰ Ideia honek ez zion hainbeste eragiten Euskal Herriari, honetan aduanak barnealdean egonik muga-sarien salbuespena gertatzen baitzen.

4.2 Valentín de Foronda

Valentín de Foronda (1751-1821) gasteiztarraren pentsamendu ekonomikoaz hitz egiterakoan kontuan izan behar dugu korrante ezberdinak uztartu zituen ilustratua izan zela. Hau da, denborarekin bere pentsaera ekonomikoa aldatuz joan zen. Modu honetan, hasiera batean Elkartean indartsu zen merkantilismo liberal eta kameralismoaren defendatzailea bazen ere, Arriquíbar bezalako pentsalariak proposatutako erreformekin bat eginez, geroago bestelako pentsamendu ekonomikoa garatuz joan zen.

Forondaren “gaztaro ekonomikoa” deitutakoan kameralismoa korrante nagusia izan zen (Soría, 2009: 619). Honen arabera, estatuak lehen mailako garrantzia izango luke hobekuntza ekonomiko eta sozialak sustatzerako orduan. Gasteiztarraren ustez espainiar industria eta merkataritzaren krisiaren jatorria gobernu ekintza okerretan zegoen. Gobernu ekintza okerren adibide gisa, Forondak Monarkia Hispanikoan XVI. mendean ezarritako kontsumoaren gaineko zergen eragin ezkorra aipatzen zuen (Soría, 2009: 623).

Gainbeheran sartutako euskal sektoreak (siderurgia, batik bat) berreskuratu ahal izateko, koroak sustatutako erreformen beharra adierazi zuen Forondak. Zentzu horretan, Karlos III.ak burututako erreformak, bereziki 1765eko gariaren merkataritza askea, goraiatu zituen, azken horretan Euskal Herrian gertatzen ziren hornikuntza krisiekiko irtenbidea ikusten baitzuen. Forondaren pentsamenduak bat egiten zuen urte horietako Elkartearen izaera eraberritzailearekin. Horri lotuta, haren “gaztaro ekonomikoan” Forondak merkataritza konpainia pribilegiatuen inguruan burututako defentsa nabarmendu beharko genuke, 1785ean sortutako Filipinaseko Konpainiaren kasuan bezala. Forondak konpainia hauen beharra defendatu zuen, batik bat merkataritza egitura garatua ez zegoen kasuetan (Barrenechea, 1984: 121). Aitzitik, Forondaren hasierako urteetan baziren ere ilustratu eta Elkartearen arteko desadostasunak, gehienbat Forondak maiorazkoen inguruan zeukan jarrera ezkorri lotuak, merkataritza garapenerako oztopoak zirela uste baitzuen (Astigarraga, 2003b: 231).

1780ko hamarkadan Forondaren pentsaera ekonomikoak beste bide bat hartu zuen, ordura arte defendatutako ideia merkantilistetatik aldentuz. Forondaren pentsamenduaren epealdi berri honi “heldutasun ekonomikoa” deitu izan zaio (Astigarraga, 2003b, 241). Aldi honetan, Foronda fisiokratei hurbildu zen, merkataritza askearen ideiak pisua hartuz. Horrela, merkataritza askearen ideien defentsan, Forondak konpainia pribilegiatuak kritikatu zituen *Cartas sobre los asuntos más exquisitos de la economía política y sobre las leyes criminales* gutun bilduman (1789-1794 artean idatzitakoak), haren pentsamendu ekonomikoa aldatu izanaren eredu garbia (Barrenechea, 1984: 223). Konpainia

pribilegiodunei prezioen garestitzea eta produktuen kalitatearen okertzea leporatu zizkien. Halaber, koroak emandako pribilegioak manufakturen garapen eta berrikuntzarako oztopo bezala hartu zituen.

Bestalde, merkataritza askearen arloan, Arriquíbarri jarraituz, merkataritza oztopatzen zuten zergen ezabatzea defendatu zuen, gariaren espekulazioan eragiten zuten biltegi pribatuen debekua aldarrikatzearekin batera. Forondak prezioen tasatzea eta enpresa publikoak gaitzesten zituen, iruzurrerako aukera suposatzeaz gain, eraberritzeko ezinak zirela pentsatzen baitzuen, kontsumitzaileei zekarkien kaltearekin. Horri lotuta, edozein produktu modu zuzen batean tasatzeko ezintasuna azpimarratzen zuen, produktuen balioa zehazteko modu hobereana lehia askea zela aldarrikatuz (Barrenechea, 1984: 228).

Kanpo merkataritzari dagokionez, Foronda aduanak ezabatzearen alde zegoen, muga-sariak industria eta merkataritzari zekarkieten kaltea adieraziz. Forondaren arabera muga-sariak kontrabandoa orokortzen laguntzeaz gain, merkataritza mugimenduak uzurtzen zituzten. Gainera, manufakturi merkatu babestu bat eskaintzean, industriaren eraberritzea eta enpresa izpiritua ekiditen zela adierazi zuen. Halaber, koroak esportazioei emandako dirulaguntzen zein inportazio eta esportazio batzuen gainean ezarritako debekuen kontra aritu zen Foronda (Astigarraga, 2003b: 234). Forondak Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak kanpo merkataritzarekiko zeukan jarrera protekzionistarekin talka egiten zuen. Elkarteak Forondak aldarrikaturiko erabateko merkataritza askearen kontra zegoen, produktu ezberdinen inportazio eta esportazio debekua bultzatuz. Elkartearen jarrera modu argian ikus daiteke 1774an erregeari bidalitako eskakizun batean. Elkarteak eskatzen zuen:

(...) no pueda embarcarse para Yndias otro fierro que el que se trabajase en las tres Provincias Bascongadas y demás de estos Reynos baxo la pena de comiso; (...) se experimentaría sin duda el beneficio correspondiente a este ramo de salida que a lo menos aliviará los males que padecen estas Provincias con el atraso de el único obgeto de su comercio.¹¹

Eskaera hau ulertzerako orduan, kontuan izan behar dugu euskal burdina krisian aurkitzen zela 1760ko hamarkadatik, besteren artean atzerriko ekoizleek suposatutako lehiaren eraginez. Krisi egoera horri egiten dio erreferentzia Elkarteak, euskal merkataritzaren gaitzei buruz hitz egitean. Europar merkatuetan gertatutako euskal burdinaren eskaeraren uzkurdurari erantzun nahian, burdingintzak babes bilatu zuen

¹¹ Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia (aurrerantzean ALHA), Fondo Prestamero, 5. kutxa, 17. zenbakia.

kolonietako merkatuetan. Azken honek, Espainiako merkatuarekin batera, burdingintza krisitik ateratzeko irtenbide nagusia suposatu zuen (Fernández de Pinedo, 1989: 207). Horregatik, koroari Ameriketako koloniak bakarrik euskal burdinaz hornitua izatea eskatu zitzaion, atzerriko burdinaren merkaturatzea debekatuz. Dokumentu honen bidez ikus dezakegu, beraz, Elkartean Forondak haren “gaztaro ekonomikoan” defendatutako ideia merkantilistek pisu handia zeukatela, zeinak bere “heldutasun ekonomikoan” aldarrikatutako ideietatik urrun aurkitzen ziren.

5. Elkarreak sustatutako erreformak

Kontuan izan behar dugu, Elkarteko kideek fisiokraten eragin nabarmena izan zutela pentsaera ekonomikoa eratzerakoan. Hortaz, lurraren ekoizpena eta lana lirateke nazio bateko aberastasunaren iturria, eta ez metal preziatuak (Astigarraga, 2003b: 78). Aitzitik, Euskal Herriko nekazaritzaren egoera defizitarioa zela eta, laborantzan erabat oinarritutako ekonomia bat garatzea ez zen posible; beraz, industria eta merkataritza funtsezkoak ziren.

Hala ere, industria eta merkataritzaren garapenerako biztanleria eta industria modu merkean horni zezakeen nekazaritza hobe bat ezinbestekoa suertatzen zen. Ondorioz, laborantza-produktuen garestitzea ekiditeko, Elkarreak nekazaritza eta merkataritza erreformak bultzatu zituen. Merkataritza erreformen adibide garbia, esaterako, Euskal Herriko bide eta sareen hobekuntza litzateke, zeinak garraio-kostuen murriztea ekarri baitzuen eta, beraz, produktuen merkeagotzea ere (Astigarraga, 2003b: 87).

Nekazaritza lehiakorra lortu ahal izateko, Elkarreak koroak ezarritako araudiak eta mugak leuntzearen garrantzia azpimarratu zuen, nekazaritza produktuak tasatzearekiko kritika burutuz. Nekazaritzaren hobekuntza gauzatzeko, beraz, merkatuan murgiltzea eta lehian aritzea ezinbestekotzat hartzen ziren. Lehia hori pizteko Elkarreak tasak bezalako tresnak baztertzea eta tokiko merkatuak irekitzea defendatu zuen, hiru lurraldeak integratuko zituen merkatu bateratu bat eratzeke helburuarekin (Astigarraga, 2003b: 91). Merkatu bateratu horretan, halaber, probintzien nekazaritza espezializazioa bultzatu zen, zeina euskal nekazaritzaren aniztasuna errespetatzearekin batera, erreforma oinarri bat baitzen.

Nekazaritza merkatua bateratzerako orduan, barnealdeko eskualdeek (Gaztela, Nafarroa eta Errioxa, hain zuzen) euskal lurraldeen hornikuntzan garrantzia handia izan zuten. Merkatuen integrazioari dagokionez, 1765eko gariaren tasazioaren indargabetzeak pisu

handia izan zuen, gariaren merkatua zabaltzea eragin zuelarik. Elkarateak barnealdeko lurraldeek eskaintzen zuten nekazaritza aukeraz ohartuta, zonaldean erreforma sendoak proposatu zituen, gorago aipaturiko bideen hobekuntza bezala.

Bestalde, Elkarateak esku lana bidali nahi izan zuen biztanleria txikiko landaguneetara (berezi Araba) soberakin demografikoa zeukaten tokietatik (gehienbat Gipuzkoa). Horrela, Gipuzkoako bizilagunen migrazioa bultzatzeko Elkarateak lekualdatzeen politika erraztea eskatu zuen. Horrez gain, Elkarateak nekazaritza-lurrak merkaturatzearen garrantzia nabarmendu zuen, lurren liberalizazioa burutzeko. Hots, lurren trukerako legedia indarrean jartzen saiatu zen Elkaratea, nekazaritza aprobetxamendu handiagoa ekar zezakeen lurren kontzentrazioa gerta zedin (Astigarraga, 2003b: 95).

Merkataritza eta industriaren arteko harremana kontuan izan behar dugu ere. Arestian aipatu dudan bezala, Euskal Herriko kanpo merkataritza burdin barra eta xafla zein bestelako eraldatuetan eta Gaztelako artilearen esportazioan oinarritzen zen, baita Caracasko Konpainiaren bidez koloniek burututako merkataritzan ere. Merkataritza ezaugarri hauek, ordainketa-balantza defizitario bat eragiten zuten, inportatuko ondasunak esportatutakoak baino balio handiagoa baitzeukaten. Defizit horren aurrean, Elkarateko kideek (Narrosek, batez ere) burdingintza eta kontsumo ondasun industria garatzearen beharra azpimarratu zuten, horretarako tailer eta manufakturen sorrera bultzatuz (Astigarraga, 2003b: 95).

Elkarateak burdin piezak eraldatzera bideratutako metalurgia eta kontsumo ondasunetako industria garatzeko proiektuak gauzatu zituen, euskal kanpo merkataritza lehiakorragoa bihurtu nahian eta nekazaritzak sortutako lan esku soberakinak xurgatu ahal izateko. Garapen horren baitan, produktuen lehiakortasuna handitzeko aurrerapen teknikoak eta akaberara bideratutako sektore baten eraketa sustatu ziren. Horri lotuta, Elkarateak antolatutako lehiaketek, zeinetan ekoizpena hobetzeko proposatutako aurrerapenak saritzen ziren, berrikuntza teknologikoen inguruan zegoen kezka erakusten digute (Martínez, 2014: 9).

Kontsumo ondasunetako industriari dagokionez, merkatu nazionalean nagusi ziren atzerriko manufakturak ordezkatu nahi zituzten, eskari handiko produktuetan zentratuz, eta ez hainbeste luxuzko ondasunetan. Elkarateak euskal manufakturak, euskal probintzietara ez ezik, penintsula eta kolonietako merkatuetara zabaltzea nahi zituen, zonalde horietako industria garapen baxua baliatuz. Modu honetan, Elkarateak Espainiako merkatuari lotutako industria-merkataritza eredu bat sustatu nahi zuen, zeinean euskal manufakturak nekazaritza baliabideengatik trukatuak izan zitezkeen (Astigarraga, 2003b: 100).

Industria proiektuek, orokorrean, garaiko konpainia pribilegiatuen eredia jarraitzen zuten, koroak eskaintako zerga pribilegio ezberdinak bilatuz, eta bestelako konpainiekin harreman estua ezarri¹². Erreforma hauei lotuta, Elkarteko kideak merkatua irekitzearen alde aurkeztu ziren, industria garatu ahal izateko baliabideak inportatuz eta euskal produktuak esportatzeko merkatu berriak aurkituz. Merkatu berriak aurkitu aldera, Elkartearen sektore batek merkataritza askea defendatu zuen foruen egokitzapen bat proposatuz. Modu honetan, Elkartearentzat auzi nagusia suposatu zuen aduanak mugitzearen inguruko eztabaida bati hasiera eman zitzaion.

6. Foruak eta merkataritza: Elkartearen ikuspegia

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen pentsamendu ekonomikoa ulertzeko orduan, Elkartea eta euskal lurraldeetako Batzar Nagusien arteko harremana kontuan hartzea ezinbestekoa da. Elkartea, euskal probintzietako politikan murgilduta zeuden nobleen eskutik jaio zen, erakundearen sostengu nagusia foru-eremuan aurkituz (Tellechea, 1985: 103). Batzar Nagusiak Elkartearen sorreran ezinbestekoak suertatu baziren ere, horrek ez zuen bi erakundeen artean gertatuko zen talka ekidituko. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideak bi errealitatearen adierazpena izan ziren. Alde batetik, ilustratuak ziren heinean, XVIII. mendeko ideia ekonomiko berrien defentsa burutzen zuten. Bestetik, foruen defendatzaile gisa, politika ekonomiko ilustratuak euskal probintzietan erregimen forala errespetatuz integratu nahi zituzten, foruzaletasun ilustratua deitu izan denaren baitan (Astigarraga, 2002: 162). Pentsamendu honen isla aduanen kokapenaren eta 1778eko merkataritza askearen inguruan sortutako auzietan ikus dezakegu.

Ilustratu ezberdinek, Arriquíbar ala Foronda esaterako, aduanen barnealdeko kokapenak Euskal Herrian gauzatzen zen industriarekiko, eta bereziki kontsumo-ondasunen industriarekiko, zekartzan kalteak azpimarratu zituzten. Azken finean, atzerriko manufakturak salbuetsita zeuden, muga-zergen babesik ez zeukan euskal industriari kanpoko ondasunen parean lehiatzea zaila suertatuz. Horren aurrean, Elkartek, industria babesteko helburuarekin, aduanak kostaldean ezartzearen balioa adierazi zuen botoigintzari buruz aurkeztutako txostenean:

¹² Bergarako Laban Konpainia eta Caracasko Gipuzkoar Konpainiaren kasua esaterako. Bigarrenak, lehenengoari kapitala zein merkatu bat eskaintzen zion.

*Sino se supiera a punto fijo el precio a que se vende este género en las Fábricas extranjeras se podía atribuir con desprecio a la equidad que hallan los comerciantes en surtirse de fuera; pero no hay tal seguramente; el principio es otro bien conocido de nuestros políticos antiguos y modernos, este remedio es tan importante como vergonzosa su publicación.*¹³

Txosten honek kanpo produktuen inportazioen kalteaz dihardu, irtenbide “lotsagarri” bat aipatuz, aduanak kostaldera mugitzea alegia. “Lotsagarri” terminoaren erabilpena, aduanak kostaldean kokatzeari leporatutako kontraforu izaerarekin lotua egongo litzateke. Dokumentuan ikus daitekeenez, Elkarteak bazekien aduanak kostaldera mugitzea onespenez sozial gutxiko erabaki bat zela, baina euskal industria zein merkataritza babesteko ezinbestekotzat hartzen zuen.

Elkartearen oinarri sozialaren atal handi bat, aitzitik, Euskal Herriko errealitate juridiko-fiskala kontserbatzearen alde zegoen, ilustratuen artean proposatutako aduanak kostaldean ezartzea zailduz. Beraz, gizarte talde nagusien izaera foruzalea zela eta, ilustratuek erreforma moderatuaren bideari ekin zioten, politika ekonomikoen begirunea aduanetan baino, probintzien arteko merkatu bateratu baten jarriz (Astigarraga, 2002: 158). Merkatu bateratua antolatu ahal izateko, Elkarteak neurri ezberdinak gomendatu zituen: euskal probintzien neurri unitateak berdintzea, bideak eraikitzeke irizpideak bateratzea, barne merkatuaren baitan existitzen ziren oztopoak ezabatzea eta pertsonen lekualdatzea erraztu zezaketen legedia ezartzea bilatu zuten, besteak beste (Astigarraga, 2002: 160). Horrez gain, atzerriko merkatuaren indarraren aurrean, euskal industria sustatu nahian, Elkarteak lantegi ezberdinen eraketan parte hartzeaz gain, zerga salbuespenen ezarpena aldarrikatu zuen (Astigarraga, 2002: 159).

Koroak ez zuen begi onez ikusi Elkarteak eskatutako zerga salbuespena, are gehiago estatu eredu zentralista indartsu bat ezarri nahi zuela kontuan izanik. Espainiako koroak koloniekiko merkataritza askatasuna ezarri zuenean 1778an, aduanen inguruko auzia pil-pilean jarri zen, euskal portuak Amerikarekin merkataritza zuzena ezar zezaketen portuetatik kanpo geratu baitziren. Euskal portuei Ameriketako zuzeneko merkataritzan ezarri zitzaien mugaz gain, 1779an euskal produktuei Gaztelako barne merkatuan sartzerako orduan ezarritako mugasariak kontuan hartu beharko genituzke ere. Horren arabera, Gaztelan sartzen ziren euskal ondasunek produktu atzerritarrei ezarritako zerga berdina ordaindu beharko zuten. Neurri honek ez zion siderurgiari eragin, baina bai zenbait produktu metalurgikori, eta

¹³ ALHA, Fondo Prestamero, 6 kutxa, 16. zenbakia.

beraz, kaltegarria suertatu zen krisian aurkitzen zen burdingintzarentzat, Europako eskaerak izandako uzkurduraren aurrean penintsulako merkatua ezinbestekoa baitzen (Gárate, 1989: 169). Koroak neurri hauek, euskal lurraldeen kaltetan baino zergadun probintzien eta errege ogasunaren mesedetan ezartzen zituela argudiatu zuen, Bizkaiko Jaurerriko ahaldun nagusiak Narrosetako markesari (Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko burua) bidalitako eskutitzean ikus dezakegun bezala:

y oyendo a v.s. proponga el medio que sea practicable en estas tres provincias para la obserbancia del citado reglamento, sin que queden abenturados los reales intereses, y los medios de que sus fábricas por la ventaja de las exempciones del país no ocasionen perjuicio a las que se hallan establecidas y se establezcan en las demás provincias del Reyno, contribuyentes a los derechos reales¹⁴.

Eskutitzak dioen bezala, Euskal Herrian ez zen Amerikarekiko merkataritza zuzena ezarri, euskal portuetan ematen zen muga-sari salbuespena kaltegarria suertatzen zelako bestelako probintzien garapenarentzat. Muga-zerga salbuespen horrek, atzerriko produktuak merkeago inportatzea eragiten zuen, hain lehiakorak ez ziren tokiko manufakturrak kaltetuz. Baita errege ogasuna ere, jakina. Neurri politiko hauen bidez, koroak zerga salbuespena zuten euskal probintzien isolamendu ekonomikoa burutu nahi zuen ere, haien merkataritza ahulduz. Modu honetan, koroak Batzar Nagusiei euskal foruak eta aduanak Espainiako erregimen politiko eta ekonomikoari egokitzeko presioa egiten zien (Astigarraga, 2002: 161). Koroak politika hauek merkatu bateratu baten eraketara eta Euskal Herrian hainbesteko pisua zeukan kontrabandoa ezabatzerako bideratuak zeudela adierazi zuen, merkataritza bateratzea gauzatu ahal izateko aduanen homogeneizazioa ezinbestekoa baitzen (Astigarraga, 2003a: 207).

Koroaren presioaren aurrean, Batzar Nagusiek haien bereizgarritasun juridiko eta ekonomikoaren defentsa burutu zuten, kostaldeko aduanen ezarpena kontraforua zela argudiatuz. Euskal aduanak espainiar aduana-erregimenaren baitan integratzearen kontrako jarrera hau ulertzeko, kontuan hartu behar dugu Batzar Nagusietako kide batzuen egoera soziala. Azken finean, foruak defendatzen zituzten nobleen aberastasun iturri nagusia errentak ziren, eta, beraz, ez zuten merkataritzan aritzeko beharrik (Astigarraga, 2003a: 212). Gainera, aduanen barnealdeko kokapenari esker, noblezia errentadunak atzerriko produktuak merkeago lortzen zituen muga-saririk ordaindu behar ez izanaren ondorioz. Euskal foruen defentsarekin jarraituz, errentadun nobleek Amerikarekin merkataritza zuzena gauzatzeko

¹⁴ ALHA, Fondo Prestamero, 5 kutxa, 14. zenbakia

aukera ez izanda ere, bestelako portuen bidez Amerikarekin merkataritza burutu ahal izango zela argudiatu zuten.

Koroak eta Batzar Nagusiek defendatzen zituzten bi jarrera kontrajarrien artean, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte bitartekari moduan aritu zen, euskal lurretako nortasun forala errespetatzen zuen aduana-erreforma bat aldarrikatuz (Astigarraga, 2003a: 204). Hots, Elkarateak erdibideko irtenbide bat proposatu zuen, pentsaera honen baitan Bilbo eta Donostiako kontsulatuaren eragina zegoelarik. Bilboko eta Donostiako kontsulatuak, 1511an eta 1682an sortuak hurrenez hurren, hiriko merkatarien ordezkariak ziren. Erakunde hauek merkataritza-akordioak erregulatu eta merkataritza gaietan epaimahai funtzioak betetzen zituzten, zenbaitetan presio talde moduan jokatu ere (Lamikiz, 2016: 114).

Bilbo eta Donostiako kontsulatuaren arabera, Amerikarekin merkataritzan aritzeko muga-sariak ordaindu behar izanak, ez zuen foruen kontrako adierazpen bat suposatzen. Hortaz, kontsulatuak eta Elkarte foruetan ezarritako aduana ezaugarriak koroak eskatutako muga-sari irizpideekin uztartzen saiatu ziren. Aspektu horretan, kontsulatuak Gaztelako artilearen salerosketa edota Caracasko Konpainia foru eta koroaren irizpideak bateragarriak zirelakoaren eredutzat hartu zituzten. Bi kasu horietan, foruen mugasari ezaugarriak jarraituz kanpo merkataritza burutzen zen, baina betiere koroari ordaindu beharreko zergak errespetatuz (Astigarraga, 2003a: 211).

Kontsulatuak eta Elkarateak ez zuten kostaldeko aduanen ezarpena defendatu (honen onarpena ezinezkotzat jotzen baitzuten), baizik eta Gaztelako artilearen merkataritzarekin eta Caracasko Konpainiarekin burutzen zen antzerako fiskalitate bat Amerikarekin merkataritzan aritzeko. Kontsulatuak neurri hauek Batzar Nagusien aurrean defendatzerako orduan, iraganeko euskaldunek merkataritzaren egoerarekiko foruen egokitzapena gauzatu zutela argudiatu zuten. Horrek ez zuen esan nahi inolaz ere, Elkarateak Euskal Herriko erabateko integrazioa defendatzen zuenik Gaztelako aduana-erregimenaren baitan. Are gehiago, Elkarte koroak defendatutako aduana-politikaren kontra azaldu zen, haren komenigarritasun eza nabarmenduz. Azken finean, Elkaratearen jarrera berritzailea izan bazen ere, foruak ahalik eta gehien errespetatzea, eta nobleziaren onespina lortzea funtsezkoak suertatu ziren haren estrategian (Torija, 1985: 47).

Laburbilduz, kontsulatuak eta Elkarateak euskal portuei Amerikarekin merkataritzan aritzeko baimentzearen alde egin zuten, horretarako foruen egokitzapena gauzatu, baina inolaz ere foruak eskaintako aduana-erregimenaren ezabapena. Azken finean, koroa eta Batzar Nagusien arteko erdibideko irtenbide bat proposatu zuen Elkarateak (Astigarraga, 2003a: 211). Aitzitik, noblezia errentaduna erdibideko irtenbidearen kontra agertu zen,

funtzionarioen kontrolak eta zerga berriek merkataritza uzkurtuko zutela defendatuz, ondorio ekonomikoak aduanak kostaldean ezarri balira bezalakoak izango zirela adieraziz (Astigarraga, 2003a: 212). Koroak, bere aldetik, aduanak kostaldera mugitu ezean, euskal portuek Amerikarekin merkataritza zuzena burutu ezingo zutela erabaki zuen. Azkenean, Elkartearen eskakizunak ez zuen Batzar Nagusien ezta koroaren onspena lortu, eta aduana erregimenean ez zen inolako aldaketarik gauzatu.

7. Egitasmo ilustratuaren harrera eta emaitza

Elkarteak proposaturiko erreformek eta jarrera berritzaileak orokorrean ez zuten haien helburua bete lehiakortasun falta eta sostengu sozial urriaren ondorioz. Manufakturen arloan proposaturiko proiektu eta enpresek, Bergarako Laban Konpainiarena besteak beste, huts egin zuten, babesturiko merkatu baten faltan ezin izan baitzuten atzerriko manufakturekin lehiatu. Gainera, beste sektoreetan ez zen berrikuntzarik gauzatu, siderurgian esaterako, gainbeheran zegoen antzinako ereduarekin jarraitu zutelarik.

Halaber, Elkartea hasieratik Euskal Herriko politikan murgilduta egon bazen ere, ez zuen erakunde politiko propiorik izan, egitasmoak aurrera eramateko erakunde politiko euskaldunen zein espainiarren sostengua ezinbestekoa izanik. Aitzitik, Batzar Nagusiek zenbait neurrien inguruko jarrera abegikorra izan arren, orokorrean haien izaera kontserbadorea neurri berritzaile ezberdinentzako zango traba bat suposatu zuen. Botere zentralarekin izandako harremana ez zen askoz hobea izan, orokorrean Elkartek egindako proposamen gehienek ez baitzuten harrera ona izan, bereziki pribilegio edo salbuespenen eskaerei zegokienean. Ondorioz, erakunde politikoaren eta Elkartearen arteko harremana interes komunetara mugatzen zen tirabira asko izanik, Elkartek zeukan sostengu politiko ahularen isla.

Beste kasu batzuetan gizatalde ezberdinek burututako oposizioa eta herritarren artean izandako onarpen urriak eredu ekonomikoa eraberritzea oztopatu zuen (Ortiz de Urbina, 2006: 48). Alde batetik, Bilboko eta Donostiako merkatariek desadostasuna adierazi zuten Amerikarekin merkataritza zuzena ez ezartzearen inguruan, Elkartek proposatutako foruen egokitzapenak ez baitzuen arrakastarik izan. Bestetik, erreformekiko oposizioa nobleen eta Batzar Nagusien artean ere sortu zen, Elkartearen sektore batek aduanen inguruko eztabaidan

izandako jarrerak noble eta Batzar Nagusien mesfidantza ekarri baitzuen, Elkarteari izaera antiforala leporatuz (Astigarraga, 2003b: 202).

Bestalde, nekazari eta lurjabe txikiek ez zuten begi onez ikusi nekazaritza lurren jabegoan elkarreak burutu nahi izan zituen erreformak, liberalizazioak lurren kontzentrazioa handitzea zekarren heinean (Astigarraga, 2003b: 202). Horri lotuta, Elkarreak sustatutako aleen merkataritza askeak ez zuen gizarte sektore ezberdinen onespina izan, bereziki soldatapeko eta nekazari txikien kasuan. Erreforma horrek 1766an piztutako matxinadan izan zuen eragina, aleen merkataritzak kontsumitzaileen gaitzespena eta haserrea sortu baitzuen.

Koroak zein Elkarreak, aleen merkataritzaren bidez, XVIII. mende erdialdetik gertatzen ari ziren gariaren inflazioa eta aleen inguruko espekulazioa gelditu nahi zuten, lehia handitzearen ondorioz prezioak merketuko zirelakoan. Aitzitik, 1765eko reformari esker lurjabe eta espekulatzaileek aleak esportatu zitzaizketen, espekulazioa zein kontrabandoa handituz (Aragón, 2021). Horrela, gariaren prezioen igoerak ez ziren soilik 1760ko hamarkadaren hasieratik izandako uzta txarrei erantzuten, prezioak baita uzta oneko urteetan igo baitziren lurjabeek aleak biltegian gordetzearen ondorioz (Fernández de Pinedo, 1999: 404).

Matxinada ale gutxiko zonaldeetan hedatu zen batez ere, hots, autohornikuntzarako arazoak zeuzkaten zonaldeetan, zeinetan burdingintzak eta bestelako industria-jarduerek garrantzia handia zuten, Azkoitia, Beasain, Elgoibar eta Arrasate kasu adierazgarriak izanik (Fernández de Pinedo, 1999: 406). Matxinada kostaldean hedatu zen ere, Deba, Mutriku eta Getariako kabotai portuetan hain zuzen ere. Matxinoen gehiengoa soldatapekoak ziren, prezioen gorakadak modu adierazgarrian kaltetzen zielarik. Matxinoak gariaren esportazio askearen kontra azaldu ziren, dekretua foruen kontra zihoala aldarrikatuz. Horrela, gariaren inguruko espekulazioarekin bukatzeko aleen prezioa jaisteaz gain aldarrikapen ezberdinak egin zituzten: Tasen berrezarpena, neurri zaharrak uztea, hasikinak (*primicias*) enkantean ez ateratzea, tokiko uztako aleak ez kanporatzea (Fernández de Pinedo, 1999: 417).

Fernández de Pinedok adierazten duen bezala: “*matxinadaren beldurrak zaldunei eta zerbait gal zezaketenei eragin zien*” (Fernández de Pinedo, 1999: 415). Modu honetan, matxinoek haien haserrea bi taldetara zuzendu zuten: Eliza eta udalarekin lotura estua zeukaten nobleak, gari ateratzaile gisa jarduten zutenak. Azken hauek ziren espekulazioaren eragile nabarmenenak, haien lurren errentak espezieetan saltzearen eta udal politikarekin zeukaten loturen ondorioz, aleak trafikatzeko zituztela leporatu ziztelarik (Fernández de Pinedo, 1999: 418).

Talde horren barruan, Elkartearen kide ziren noble ezberdinak aurkitzen ditugu, Peñafiorida kondea eta Narroseto markesa besteak beste, matxinoak zapaltzeaz arduratu ziren armadaren buru izan zirenak, bestalde. Matxino hauekiko errepresioa, ahaldun eta jauntxoan arteko lankidetzaren bitartez gauzatu zen, Donostia errepresioaren motor bezala jardunez. Azkenean, jauntxoek matxinoak zapaldu zituzten, matxinadan zehar onartutako kapitulazioak deuseztatuz eta aleen merkataritzaren legea berrezarrituz, hots, tasen ezabaketa eta aleen kanporatzea baimenduz.

Amaitzeko, 1778-1781ko krisiak, zeinean merkataritza askerako dekretuak pisu handia izan zuen, Elkartearen erreformak etetean izandako eragina aipatu behar dugu (Astigarraga, 2003b: 201). Krisi horri hainbesteko babes soziala galdu izana gehituz gero, Elkartek bere jarrera aldatzera behartuta ikusi zen. Horrela, Elkartek ekonomian baino, beste aspektuetan zentratzea erabaki zuen, Bergarako Mintegiari arreta berezia eskainiz, euskal ekonomiaren garapen nahia bigarren maila batean kokatuz. 1808an Elkartearen batzordeak desegin ziren, egitasmo ilustratuari amaiera emanez (Martínez, 2014: 12). Hala ere, haren izaera ekonomiko ilustratu eta foruzalea ez zen guztiz desagertu, XIX. mendean foruen inguruko auzia indartzean Euskal Herriko sektore batek foru eta ideia liberalak uztartzen saiatu baitzen, liberalismo foruzalea deitu izan denaren baitan.

8. Ondorioak

Euskalarreriaren Adiskideen Elkartea eredu ekonomiko zaharkitu bati erantzuna ematea bilatu zuen egitasmoa izan zen, merkataritzari garrantzi handiagoa eskainiko zion eredu ekonomiko bat aldarrikatuz. Euskal ekonomiaren sektore ezberdinek pairatzen zuten krisiaren aurrean, Elkartek jarrera erreformista bat aurkeztu zuen Europan eta Monarkia Hispanikoan garatzen ari zen errealitate ekonomiko eta politiko berriari egokitu nahian. Hala ere, garaiko erakunde politikoek (bereziki, Batzar Nagusiek) eskainitako malgutasun txikiaren eta ideia ilustratuak herritarren artean izandako eragin urriaren ondorioz, ekonomia erreformatzeko zailtasun handiak aurkitu zituen Elkartek (Ortiz de Urbina, 2006: 48).

Elkartearen barne egitura eta kideak ikusita, erakunde anitza izan zela ondoriozta dezakegu. Aniztasun hori bere barnean zeuden talde ezberdinetan aurkitzen dugu, Elkartearen barruan bai merkataria zein noblezia baitzeuden. Talde horiek euskal ekonomiaren garapena bilatzen zuten arren, zenbait aspektutan interes ezberdinak zituzten, horrek zekartzan

tirabirekin. Honen adibide argia, Donostiako merkatari eta Elkarteko nobleen arteko tentsioa litzateke, zeinak Donostiako Adiskideen Elkartearen sorrera eragin zuen. Aniztasuna, Elkartean parte hartu zuten ilustratuen pentsaeran soma dezakegu ere, Arriquirarrek eta Forondak¹⁵ konpainia pribilegiatuen inguruan izandako jarrera kontrajarriak ilustratuen arteko ezberdintasunen adibidea litzatekeelarik. Beraz, ezin dugu esan modu zurrunean aritu zen erakundea izan zenik, haren izaera etengabe garatu eta bestelako erakundeekiko jarrera aldatu baitzuen, Caracasko Konpainiarekin izandako harremanetan ikusi dugun bezala, zeinarekin lankidetzatza eta tirabirak tartekatatu ziren.

Elkartek ilustrazioarekin hedatutako pentsaera ekonomiko berrien ordezkari gisa jardun zuen, euskal gizartearen sektore ezberdinetan onespene urria izanik. Onarpen eskas hau, besteren artean, aduanen inguruko auzian azaleratu zen, Elkarteko kide ziren merkatariak aduanen erreforma defendatzen baitzuten, maiorazkodun nobleziaren haserrea sortuz eta Batzar Nagusiekiko urruntzea eraginez. Batzar Nagusiek eta nobleek defendatutako foruzaletasun zurrunetik aldenduz, Elkartek pentsamendu ilustratua eta jarrera foruzale erreformista uztartu zituen. Modu honetan, Elkartek ez zituen foruak ukatu, hauen eraberritze bat bilatu baizik (Astigarraga, 2002b: 194).

Eraberritzearen bidez monarkia eta euskal probintzien artean elkarrekiko onuragarria zen harreman bat ezartzea lortu nahi izan zen, zenbait pribilegio historikoei uko egitea bazekartzan ere. Beraz, Elkartek euskal interesak defendatzeko bide berri bat proposatu zuen, Aro Berrian zehar nagusi izandako eta Batzar Nagusiek defendatutako foruzaletasun ortodoxotik bereizten zena. Koroa eta Batzar Nagusien arteko erdibideko jarrera honek babes sozialaren galera eragin zuen, gizarte sektore tradizionalak Elkarteari foruen kontra aritzea leporatu ziotelarik. Horrela, luzez iraun duen Elkartea eta foruen inguruko interpretapen historiko desitxuratua sortu zen, zeinean Elkartek foruen inguruko jarrera erabat axolagabea izango lukeen. Aitzitik, egun badakigu Elkartearen oinarri ideologikoan, haren izaera ilustratuaz aparte, sentimendu foruzalea aurkitzen zela.

Aduanen ingurukoa ez zen izan Elkartearen kontrako erreakzioa eragin zuen merkataritza neurri bakarra. Elkartek defendatutako gariaren merkataritza askean berriro ere gizarte sektore batek eginiko foruen defentsa aurkitzen dugu, 1766ean matxinadan asaldatu ziren artisau, olagizon eta soldatapeko nekazariak burututakoa alegia, Elkarteari foruen kontra joatea leporatu ziotenak. Beraz, egia bada ere euskal merkataritza berpizteko Elkartek foruetatik haraindiko neurriak aldarrikatu zituela (besteren artean azpiegitura ezberdinen

¹⁵ Azken honek bere "heldutasun ekonomikoan" deitu delakoan.

eraikuntza eta tekniken berrikuntzak) haren erronka nagusia euskal foruak errespetatzen zituen eta euskal gizartearen zein koroaren onespena izango zuen eredu ekonomiko ilustratu baten ezarpena izan zen.

Aitzitik, euskal gizartea (gehienbat noble eta herri xeheak) eredu ekonomia berritzeko azaldutako interes eza eta 1780 ondoren piztutako krisiaren ondorioz, Elkarteak haren izaera erreformatzailea murriztu eta zientzia ekonomiaren inguruko batzarrak desegin zituen, hezkuntzan eta Bergarako mintegian zentratuz. Hala ere, horrek ez du esan nahi Elkartearen egitasmo ilustratuak oihartzunik izan ez zuenik euskal ekonomian. Izan ere, Elkarteak defendatutako foruzaletasun ilustratua (hots, foruen barruko izaera liberala eta erreformatzailea) XIX. mendean hedatu zen foruzaletasuna liberalaren aurrekaritzat jo dezakegu (Astigarraga, 2002b: 194), zeinean euskal interesen defentsa Espainiako marko politikoaren baitan gertatu zen, Elkarteak egin zuenaren antzera.

9. Artxiboko Iturriak

Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia (ALHA), Fondo Prestamero, 5. kutxa, 17. zenbakia.

Deskribapena: Peñafloidako Kondeak Elkartearen izenean, Espainiako erregeari atzerriko burdinaren sarrera debekatzeko eta Euskal Herriko burdinaren gaineko zerga salbuesteko bidalitako eskakizun bat. Data: 1774.

ALHA, Fondo Prestamero, 6 kutxa, 16. zenbakia. Deskribapena: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko 3. batzordeak botoigintzari buruz aurkeztutako txostena. Data: 1776ko Iraila.

ALHA, Fondo Prestamero, 5 kutxa, 14. zenbakia. Deskribapena: León de Arespacochaga Bizkaiko Jaurerriko ahaldun nagusiak Joaquín María de Eguíari (Narroseko markesa, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko burua) bidalitako eskutitza. Data: 1780ko Iraila.

10. Bibliografia

Alcorta, E. (2009). “La importancia del comercio en el siglo XVIII y su influencia en la RSBAP”. In Astigarraga, J.; López-Cordón, M.V. eta Urkia, J.M. (ed.). *Ilustración, Ilustraciones*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea, Donostia, 953-966.

Anes, G. (1985). “El interés por la economía en la fundación de las Sociedades de Amigos del País”. In *I Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 11-34.

Aragón, A. (2021). *Matxinadas*. Enciclopedia Auñamendi [en línea], [Kontsulta data : 2021eko Maiatzaren 8a].

Astigarraga, J. (2002). “El "fuerismo ilustrado" de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País”. *Notitia vasconiae: revista de derecho histórico de Vasconia*, 1, 149-168.

Astigarraga, J. (2003a). “Aduanas forales, integración económica y reformismo ilustrado”. *Notitia vasconiae: revista de derecho histórico de Vasconia*, 2, 203-238.

Astigarraga, J. (2003b). *Los ilustrados vascos. Ideas, instituciones y reformas económicas en España*. Crítica, Bartzelona.

Astigarraga, J. (2009). “Sociedades económicas y comercio privilegiado. La Sociedad Bascongada, la Compañía de Caracas y la vertiente marítima de la Ilustración vasca”. *Itsas memoria. Revista de estudios marítimos del País Vasco*, 6, 669-688.

Astigarraga, J. eta Barrenechea, J. M. (1987). *Recreación Política de Nicolás de Arriquibar. Del Uso de la Aritmética Política de Charles Davenant*. Instituto Vasco de Estadística, Bilbao.

- Barrenechea, J. M. (1984). *Valentín de Foronda, reformador y economista ilustrado*. Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Blanco, J. L. (2021). *Gaspar de Munibe y Tello, II marqués de Valdelirios*. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País [en línea], [Kontsulta data : 2021eko Maiatzaren 6a].
- Domínguez, C.; Etxeberria, M. eta Gamecho, M. A. (1986). “La sociedad de amigos del País de San Sebastián de 1779: ¿Un proyecto enfrentado a la bascongada?” In *I Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 239-270.
- Fernández de Pinedo, E. (1989). Burguesía comercial autóctona, proteccionismo e industrialización en el País Vasco en el siglo XIX. In Cerutti, M eta Vellinga, M. *Burguesías e industria en América Latina y Europa Meridional*. Alianza, Madril, 203-229.
- Fernández de Pinedo, E. (1999). *Euskal Herriko ekonomi hazkundera eta gizarte-aldaketak (1100-1850)*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Zarautz
- Gárate, M. (1988). “Comercio, burguesía y acumulación de capital en el País Vasco (1700-1841)”. *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*, 9-10, 35-54.
- Gárate, M (1989). “Comercio exterior en el País Vasco (siglos XVIII-XIX)”. *Historia Contemporánea*, 2, 165-178.
- Gárate, M. (2008). “Las sociedades ilustradas en la España del XVIII. Economía y educación”. In *XVII Coloquio de Historia Canario-Americana: V Centenario de la muerte de Cristóbal Colón*. Gran Canaria Uharteko Kabildoa, Las Palmas Kanaria Handikoa, 858-886.
- Imízcoz, J. M. eta Chaparro, A, (2009). “Los orígenes sociales de los ilustrados vascos”. In Astigarraga, J.; López-Cordón, M.V. eta Urkia, J.M. (ed.). *Ilustración, Ilustraciones*. II. lib. Euskalerriaren Adiskideen Elkarte, Donosti, 993-1027.
- Imízcoz, J. M. (2016). “Servidores del rey, hombres de negocios, ilustrados. Las élites vascas y navarras en la monarquía borbónica”. In Aguinagalde de, B.; Arrieta, J. eta Imízcoz J.M. (ed.) *El País Vasco, tierra de hidalgos y nobles momentos singulares de la historia*. Fundación Banco Santander, Bilbao, 125-187.
- Lamikiz, X. (2016). “¿Qué tipo de capital social generaron los gremios de comerciantes? Reflexiones a partir del ejemplo del Consulado de Bilbao, 1511-1829”. In Angulo, A eta Aragón A. (koord.) *Recuperando el Norte: empresas, capitales y proyectos atlánticos en la economía imperial hispánica*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 103-128.
- Martínez, J. (2014). “Memorias de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País”. *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*, 70, 5-43.

- Ortiz de Urbina, C. (2006). “La Patria común Bascongada una quimera soñada por los Amigos del País”. *Sancho el sabio: Revista de cultura e investigación vasca*, 25, 25-50.
- Soria, L. (2009). “La economía política según Bielfeld y Foronda”. In Astigarraga, J.; López-Cordón, M. V. eta Urkia, J. M. (ed.). *Ilustración, Ilustraciones*. Euskalerrriaren Adiskideen Elkartea, Donostia, 617-632.
- Tellechea, J. (1985). “En los orígenes de la *Bascongada*: El primitivo “Plan de sociedad económica o academia” presentado en las Juntas Generales de Guipúzcoa (1763)”. In *I Seminario de Historia de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 99-120.
- Torija, C. (1985). *En torno al libre comercio con Iberoamérica: Planteamientos teóricos y condicionamientos socio-políticos en el País Vasco*. Arabako Foru Aldundia. Vitoria-Gasteiz.
- Uriarte, R. (2003). “El hierro vasco y los mercados europeos y colonial durante el Antiguo Régimen”. *Itsas memoria. Revista de estudios marítimos del País Vasco*, 4, 313-326.